

BASERRI BIDAIA

Egun batean, Maria izeneko neskatxa bat bizi zen bere aita eta amarekin, mendian zegoen baserri batean. Baserri horretan animalia asko zeuden: behia, txerria, ardiak, txakurra, untziak, zaldiak, oiloak eta txitak.

Baserria zahartzen zegoen eta pintatu egin zuten arrosa eta urdinez. Pintatu ondoren baserria goraka joaten jasi zen eta beste herri batetara joan zen. Herri horretan txapapotea zegoen eta jende guztia mendiko botekin ibiltzen zen. Gero denak baserriari begiratu zioten eta baserria berriro ere mendira joan zen, bere lekura.

Baserriko animalia guztiek gosea zuten eta Mariak janaria eman zien: zaldiei lastoa, behiari belarra, oiloei eta txitei artoa, untziei azenarioak, ardiei belarra eta txakurrari hezurak.

Beste egun batetan, baserri bidaiaria beste herri batera joan zen. Herri horretan festak zeuden, musika jarri zuten eta herriko jendea poz-oz ibili zen, denak dantza egin zuten. Ordu bat pasa zen eta musika kendu zuten, gero buruhandiak atera zirek, haurrak oso ondo pasa zuten. Maria bere animaliekin herrian jolastu zen. Gero denak baserriari begiratu zioten eta baserria berriro ere mendira joan zen, bere lekura.

Mendian geratu ziren. Maria eta animaliak aspertuak zeuden eta amari esan zion:

- Ama aspertuta nago.

Baserria denda batera joan zen. Jostailu denda zen. Han jostailu asko zeuden: barbiak, panpinak, fashion-poliak, espader-man, margoak. Maria ez zen aspertu.

Maria oso pozik bizi zen bere baserri bidaiariarekin.